



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Valle de Trápaga-Trapagarango Udala

Valle de Trápaga-Trapagarango Udaleko langileen plantillan hutsik dagoen hirigintza eta Ingurumeneko Teknikari lanpostu bat (1) lehiaketa-oposizio libre sistemaren bidez betetzeko hautapen prozesuaren deialdiaren oinarriak.

Alkate jaunak, 2024ko uztailaren 24ko 959/2024 dekretuaren bidez, Alkatezari dagozkion eskumenak baliatuz, ebazpen hau eman du:

Ikusirik Idazkaritzako Teknikariak 2024ko uztailaren 16an egindako proposamena, osorik sartzeko dena ebazpen honetan, motibaziotzat baliatuz Administrazio Publikoaren Prozedura Administrazio Erkidearen 39/2015 Legearen 88.6 artikuluan xedatutakoaren arabera.

2024ko uztailaren 22an dagokion Negoziazio Mahaira eramanda Valle de Trápaga-Trapagarango Udalean hutsik dagoen Hirigintza eta Ingurumeneko teknikari lanpostu bat (1) lehiaketa-oposizio sistemaren bidez betetzeko deialdiaren oinarriak (LPZ 14 zenbakia), zenbait aldaketa puntual egin dira oinarri horietan.

Ikusirik Kontu-hartzailearen 2024ko uztailaren 23ko txostena eta 2024ko uztailaren 24ko txostena.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1h) artikulua eman den dizkidan eskumenak erabiliz, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/20215 Legearen 10. artikuluan aurreikusitako goragokoak eskumenak beregatzeko ahalmena erabiliz, honako hau,

EBATZI DUT:

Lehenengoa: Valle de Trápaga-Trapagarango Udaleko plantillan hutsik dagoen Hirigintza eta Ingurumeneko Teknikari lanpostu bat (1) lehiaketa-oposizioaren bidez (txanda libre) betetzeko hautapen prozesuaren deialdia egitea eta deialdi hori arautuko duten oinarriak onartzea.

Bigarrena: Oinarrien testu osoa argitaratzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Udalaren egoitza elektronikoak eta Iragarki-oholean, ahalik eta zabaldunderik handiena eduki dezan.

Halaber, komunikabide sozialetan argitaratuko dira hautapen prozesuaren deialdia eta haien alderdirik esanguratsuenak, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 79.4 artikulua arabera.

Hirugarrena: Deialdiaren laburpen bat argitaratzea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta, azkenik, Estatuko Aldizkari Ofizialean. Eskerak aurkezteko epea hogei (20) egun balioduneko izango da BOEn argitaratzen den egunetik hasita.

Laugarrena: Ebazpen honen berri ematea egiten den hurrengo osoko bilkuran.

Valle de Trápaga-Trapagarango Udala, 2024ko uztailaren 24an.— Alkatea, Miguel Ángel Gómez Viar

**VALLE DE TRÁPAGA-TRAPAGARANGO UDALEKO LANGILEEN PLANTILLAN HUTSIK DAGOEN HIRIGINTZA ETA INGURUMENEO TEKNIKARI LANPOSTU BAT (1) LEHIAKETA-OPOSIZIO LIBRE SISTEMAREN BIDEZ BETETZEKO HAUTAPEN PROZESUAREN DEIALDIAREN OINARRIAK****Lehenengoa.—Deialdiaren xedea**

Deialdi honen xedea da Valle de Trápaga-Trapagarango Udaleko langileen plantillan, Zerbitzu Teknikoen Sailean (LPZ zenbakia 14) hutsik dagoen Hirigintzako eta Ingurumeneko teknikari lanpostu bat (1) karrerako funtzionario gisa betetzea, lehiaketa-oposizio irekiaren bidez. Lanpostu hori 2022ko ekitaldiari dagokion lan-eskaintza publikoan sartuta dago. Eskaintza hori 706/2022 Alkatetza Dekretuaren eta 731/2022 Alkatetza Dekretuaren bidez onartu zen (hutsen zuzenketa), eta 2022ko azaroaren 18ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (220 zenbakia) eta 2022ko azaroaren 30eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (228 zenbakia) eta 2022ko azaroaren 29ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (228 zenbakia) argitaratu zen. Hona hemen ezaugarriak:

Taldea	A
Azpitaldea	A2
Eskala	Administrazio Berezia
Azpieskala	Teknikoa
L.P.O.	24
B.O. (2021 urtea)	2.222,93 euro
Izena	Hirigintza eta Ingurumeneko Teknikaria
Postuaren kodea (2021 LPZ)	14
Lanpostu hutsen kopurua	1
Dedikazioa	Normala (%100)
Titulazioa	5 (Arkitekto teknikoa edo aparejadorea: gradu edo titulazio baliokidea, indarreko arautegiaren arabera)
Hizkuntza Eskakizuna	3 (derrigortasun datarik gabea)

Egin beharreko eginkizun eta zeregin nagusiak lanbide-kategoriaren eremukoak izango dira, eta Zerbitzu Teknikoen Saileko (Hirigintza, Zerbitzuak eta Ingurumena) jardura-ildoei lotuta egongo dira. Horietakoren batzuk, adierazpen gisa, honako hauek izango dira:

Eginkizunak

- Bere titulazioak gaitzen dituen funtzioak betetzea.
- Aholkularitza teknikoa ematea dagokion sailari, eta hirigintza-lizentziei buruzko espedienteak izapidetu eta ebaztea.
- Hirigintza-ikuskaritzako eginkizunak betetzea, eta hirigintzako arau-hausteengatiko zehapen-espeditenteei buruzko informazioa ematea.
- Obrak eraisteko edo berreraikitze agintzea, egikaritze-aginduaren arabera, eta horien erabilera eragozteko, dagokion lizentziak edo egikaritze-aginduak babesten ez baditu, edo lizentziaren baldintzetara egokitzen ez badira.
- Hirigintza-legezketasuna babestu eta berrezartzeari buruzko espedienteak izapidetzea eta, hala badagokio, horien berri ematea.
- Ingurumena zaintzeko eta kudeatzeko espediente, programa eta proiektu espezifikokoak kudeatu eta lantzea.
- Natura-ingurunearekin lotutako proiektuen prestaketa gainbegiratzea, eta kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen kudeaketak dakarren hirigintza-betearazpeneko prozesuak zuzentzea.



- Esleitzen zaizkion langileen lanak zuzentzen eta gainbegiratzea.
- Unitatea hobetzeko eta modernizatzeko proposamenak aurkeztea, eta bere unitateari dagozkion prozeduren eskuliburua egiten eta aplikatzen laguntzea eta sustatzea.
- Dirulaguntzak eskatzen eta horien jarraipena egiten laguntzea.
- Gainerako sailekin elkarlanean aritzea, saila inplikatzeko duten gaietan.
- Eskatzen zaizkion eta bere jardun-eremuak diren gaietan jendeari arreta ematea.
- Unitateak sustatutako lizitazioetan preskripzio teknikoaren agiriak idaztea. Unitateko programak eta/edo zerbitzuak kudeatzeko kontratatutako enpresek egindako lanaren jarraipena eta kontrola egiten laguntzea, aldian-aldian arduradunekin bilerak eginez.
- Hala eskatzen zaionean, saileko informazio-batzordeetara joatea, bertan parte hartzeko eta aholkuak emateko.
- Langileak hautatzeko epaimahaietan parte hartzea, lanpostuaren sailkapenaren eta/edo titulazioaren arabera, hala eskatzen zaionean.
- Saileko obra eta zerbitzuetako buruari laguntzea eta/edo ordezkatzeko, lan-puntak, gaixotasunagatiko baja, oporrak eta abar daudenean, saileko arduradunaren jarraibideei jarraituz.
- Halaber, agintzen zaizkion beste zeregin batzuk egitea, beti ere bat etorriko direnak lanpostua betetzeko eskatzen den kualifikazioarekin.

Atazak

- Jarduera- eta obra-lizentzien espedienteak izapidetzea eta, hala badagokio, horien berri ematea.
- Esleitu zaizkion udal-lanen proiektuak prestatzea, aurrekontuak, memoriak, baldintza teknikoaren agiriak eta segurtasun-azterlanak eginez eta delineatzaileari planoak idazteko jarraibideak emanez.
- Esleitu zaizkion udal obren gauzatzea ikuskatzea, sor daitezkeen arazoak konponduz.
- Hirigintzako eta ingurumeneko kontsultei buruzko txosten teknikoak egitea
- Hirigintza-diziplinaren araudiaren aplikazioa kontrolatzea (zaratak, aurri-egoera, lizentziarik gabeko obrak...)
- Obra-, irekiera- eta jarduera-lizentzien espedienteetan txosten teknikoak egitea
- Aurretik zerrendatutako obrak eta jarduerak ikuskatzea, kontrolatzeko eta, hala badagokio, neurri zuzentzaileak hartzeko, eta, halaber, partikularrek sailarekin lotuta egindako salaketetatik eratorritako gertakariak egiaztatzea ere bai.
- Udal-arkitektoarekin lankidetzan aritzea hirigintza-planeamendu eta -plangintzako gaietan, eta ikuskapenetan ere bai.
- Bideei eta pasabide-emakidei buruzko informazioa ematea.
- Seinaleztapen horizontalari, bertikalari eta bideragarritasunari buruzko balorazio-eta mantentze-proiektuak prestatzea udalerriko hirigune guztietan.
- «In situ» neurketak egitea, sonometroa eskuan, taberna, etxebizitza, fabrika eta lokaletan.
- Hirigintza Batzordearentzako txostenak egitea, bere eskumenen barruan, eta Korporazioak eta/edo beste Administrazio batzuek eskatutako edozein txosten ere bai.
- Informazio-batzordeetara joatea.
- Saileko gaiei dagokienean kontratatutako enpresek eta beste administrazio batzuekin lankidetzan aritzea.
- Obrak ikuskatzea, ondoren abalak itzultzeko.



- Udal-plangintza onartu ondoren edo horretarako egiten diren kanpainetan aldaketak egin ondoren jendeari arreta ematea, hitzaldiak ematea eta abar, eta udal-planeamendua idazten duen taldearekin lankidetzan aritzea.
- Artxibatutako espedienteen datuei buruz bere nagusiek edo beste administrazio batzuek egindako eskaerei erantzutea, eskatutako datuak bilatuz, etab.
- Udaleko aparejadorea ez dagoenean haren ordeztu jardutea zenbait eginkizunetan: obretako brigada, zerbitzuak.
- Bere kategoriari dagokion beste edozein zeregin egitea, aldez aurretik horretarako prestakuntza jaso badu.

Tratu-berdintasunaren printzipioa

Indarrean dagoen Konstituzioaren 14. artikulua eta abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 6. eta 9. artikuluek ezartzen dutenaren arabera, deialdiek tratu-berdintasunaren printzipioa beteko dute, eta ezin izango da inolako bereizkeriarik egin jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi edo bestelako baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozialengatik, baldin eta diskriminazio hori ez badago tratu berezia oinarritzen duen arauen baten babespean, kasu justifikatu eta arrazoizkoetan, kasuetan, proportzionaletan eta kongruenteetan.

Bigarrena.— Hautagaiek parte hartzeko eskakizunak

Euskal enplegu publikora sartzeko hautaketa-prozesuetan parte hartu ahal izango dute honako baldintza hauek betetzen dituztenek:

- a) Aldez aurreko eskaera egitea
- b) Nazionalitatea:
 - b.a) Espainiako nazionalitatea izatea.
 - b.b) Honako hauek ere parte hartu ahal izango dute, funtzionario gisa, espainiarrek enplegu publikoetan dituzten baldintza berberetan, zuzenean edo zeharka botere publikoa egikaritzen edo Estatuaren eta administrazio publikoen interes orokorrak babesten parte hartzea dakarten enpleguetan izan ezik:
 - Europar Batasuneko estatu kideetako herritarrak.
 - Espainiako pertsonen eta Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetako herritarren ezkontidea, ezkontide horien nazionalitatea edozein dela ere, betiere zuzenbidez bananduta ez badaude.Halaber, baldintza berberekin, bi pertsona horien ondorengoek parte hartu ahal izango dute, hogeita bat urtetik beherakoek edo adin horretatik gorakoek, menpekoak badira.
 - Europar Batasunak sinatutako eta Espainiak berretsitako nazioarteko tratatuen aplikazio-eremuan dauden pertsonak, langileen zirkulazio askea aplikatzekoa denean, paragrafoan ezarritako baldintzetan.
- c) Gaitasuna:

Zereginak betetzeko gaitasun funtzionala izatea. Gaitasun psikofisikoa eta gaitasun edo desgaitasunaren bateragarria izan beharko dute deitutako lanpostuei dagozkien eginkizunak eta zereginak normaltasunez betetzeko. Udal Zerbitzu Medikoek egiaztatuko dute hori, lan-arriskuen prebentzioari buruz indarrean dagoen araudiaren arabera langileak lanetik eratorritako arriskuetatik babesteko egin beharreko egokitzapenak alde batera utzita.

Alderdi hori dagokion mediku-azterketaren bidez egiaztatuko da, praktiketako edo karrerako funtzionario izendatu baino lehen.
- d) Adina:

Hamasei urte beteta izatea eta ez gainditzea, kasuan kasu, derrigorrezko erretirorako gehienezko adina.



e) Gaikuntza:

Diziplina-espeditante bidez edozein herri-administrazioen edo autonomia-erki-degoetako konstituzio- edo estatutu-erakunderen zerbitzutik bereizita ez egotea, eta ebazpen judicial bidez enplegu edo kargu publikoetarako erabateko desgai-kuntza edo desgai-kuntza berezia ez izatea funtzionarioen kidego edo eskaletara sartzeko.

Beste estatu bateko herritarra izanez gero, desgaituta edo egoera baliokidean ez egotea, eta bere estatuan enplegu publikora iristea eragozten duen diziplina-zehapenik edo baliokiderik ez izatea.

f) Titulazioa:

Deialdi bakoitzaren oinarrietan eskatzen den titulazioa izatea edo titulua emateko eskubideak ordainduta izatea (2021 LPZ, 5. titulazioa. Arkitekto teknikoa edo aparejadorea: gradu edo titulazio baliokidea, indarrean dagoen araudiaren arabera).

Atzerrian lortutako titulazioak dituzten hautagaiek dagokien baliokidetzatza edo, hala badagokio, homologazioa egiaztatzen duen kredentziala dutela egiaztatu beharko dute.

g) Herri-administrazioen zerbitzura dauden langileen bateraezintasunen arloan indarrean dagoen araudian aurreikusitako ezgaitasun edo bateraezintasuneko legezko kausaren batean sartuta ez egotea, hargatik eragotzi gabe, dagoeneko kargu publiko edo jarduera pribatu bateraezin bat betetzen dutenentzat, aipatutako lege-arauetan aipatzen den aukera-eskubidea erabiltzea.

Deialdian parte hartu nahi dutenek eskatutako baldintza guztiak beteta izan beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunerako.

Era berean, izendapenaren unera arte eduki beharko dira eskakizun horiek guztiak hautaketa-prozeduran zehar, gaitasun funtzionalari buruzko b) atalean adierazitakoa izan ezik, zeina udal-zerbitzu medikoek egiaztatu beharko baitute praktiketako edo karrerako funtzionario izendatu baino lehen.

Aurrekoa gorabehera, prozeduraren edozein unetan hautagairen batek deialdian eskatutako baldintzak betetzen ez dituela jakinez gero epaimahaiak, deialditik kanpo utziko du, interesdunari entzun ondoren, eta egun berean horren berri emango zaio hautaketa-prozesua deitu duen agintariari.

Hautaketa-prozesu honetako hautagaiek berriaz onartzen dute, kontrakoa adierazi ezean, beren datu pertsonalak oinarri hauetan adierazitako moduan eta helburuarekin tratatzea.

Hirugarrena. — Eskabideak aurkezteko modua eta epea1. *Eskabideak betetzea eta aurkeztea.*

a) Eskaerak 20 egun balioduneko epean aurkeztu beharko dira, deialdia Estatu-ko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita, ahal dela Valle de Trápaga-Trapagarango Udalaren egoitza elektronikoaren bidez, eredu ofizial eta normalizatuan. Hemen dago eskuragarri.

— <https://www.trapagaran.net>

Era berean, hautagaiek honako toki hauetan aurkeztu ahal izango dituzte eskabideak:

— Valle de Trápaga-Trapagarango Udaleko Erregistro Orokorrean (Lauaxeta plaza, 1), 9:00etatik 13:00etara, astelehenetik ostiralera.

Eskatzaileek beren nortasuna egiaztatu beharko dute udal langileen aurrean.

— Halaber, 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publiko Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duenak aipatzen dituen tokietan ere aurkeztu ahal izango dira eskabideak. Posta-bulegoetan aurkeztutako eskabideak eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen entregatuko dira, gutun-azal irekian, posta-funtzionarioak data eta zigilua jar diezaien.



Horrela bakarrik ulertuko da postetxean aurkeztu ziren egunean sartu zirela.

- b) Eskabidean, lehiaketa-fasean baloratu nahi diren merezimenduei dagozkien datuak alegatu beharko dituzte.
- Ondorio horietarako, ez dira baloratuko eskabidean behar bezala alegatu ez diren merezimenduak.
- c) Onartuak izateko eta, hala badagokie, dagozkien hautaprobetan parte hartzeko, hautagaiek eskabideko atal guztiak bete beharko dituzte. Eskatutako baldintza guzti-guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute, betiere aurkezteko epea amaitzen den egunari dagokionean.
- d) Eskabideetan hautaprobak zein hizkuntzatan egin nahi dituzten adierazi beharko da (euskaraz edo gaztelaniaz). Atal hau adierazi ezean, probak gaztelaniaz egingo direla ulertuko da, besterik adierazi ezean. Hala ere, gaitasun psikoteknikoak ebaluatzeko probak diseinatuta dauden hizkuntzan edo hizkuntzetan egingo dira.
- e) Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan xedatutakoaren arabera, eskabideetan akatsik izanez gero, interesdunari 10 eguneko epea emango zaio akatsak zuzentzeko, eta adieraziko zaio, hala egin ezean, atzera egin duela ulertuko dela eta eskabidea artxibatu egingo dela, horretarako ebazpena eman ondoren.

Ofizios egiaztatu eta/edo gehituko zaizkio espedienteari honako betekizun/informazio hauek, interesdunak berariaz kontrakoa adierazi ezean:

- Nortasun-datuak egiaztatzea.
- Unibertsitate-titulu ofizialak.
- Hizkuntza-eskakizunik altuena (euskara).
- Ikastaroen ziurtagiria: IVAPen bidez (Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea) egindako gainditutako ikastaroen zerrenda.

Aurkeztu beharreko dokumentuak Valle de Trápaga-Trapagarango Udalaren esku daudenean, ez da beharrezkoa izango berriro aurkeztea, betiere entregatu zen data eta bulegoa jasota uzten badira, eta dagokien prozedura amaitu zenetik bost urte baino gehiago igaro ez badira. Valle de Trápaga-Trapagarango Udalak, eskuragarri dauden datuen bitartekotza-sistemen bidez egiaztatuko ditu Administrazioaren esku dauden interesdunen datuak eta haiei buruz egin beharrezko kontsultak egingo ditu eta deialdi honen administrazio-izapideak egiteko eskatzen den beste edozein daturi buruzkoak ere bai, horretarako formularioetan adierazitakoaren arabera. Administrazio publikoen arteko datu-bitartekaritzaren oinarria honako lege hauek dira: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduarien 6. artikulua, pertsona fisikoaren babesari buruzkoa, eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikulua, non aitortzen baita herritarrek eskubidea dutela administrazio jardulearen esku dauden dokumentuak edo beste edozein administrazio egindakoak ez aurkezteko; eta gainerako legeria aplikagarria. Horregatik, elkarreragingarriak izan daitezkeen datuak dituzten dokumentuak edo ziurtagiriak eskatzeari utziko zaio, baldin eta interesdunak [edo haren ordezkariak] datu horiek erabiltzearen aurka ez badago; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu. Arrazoi teknikoak direla-eta elkarreragingarritasuna ezinezkoa bada, Valle de Trápaga-Trapagarango Udalak izapideak egiteko behar diren datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu. Era berean, administrazioek lankidetzan jardun behar dute, 40/2015 Legearen 155. artikulua adierazten duen bezala, datu-trukearen inguruan, eta haien esku dauden herritarrei buruzko datuak eman behar dituzte.

Eskabidearekin batera honako hauek aurkeztu beharko dira:

- Deialdian parte hartzeko eskatzen den tituluaren fotokopia, datuen bitartekotza-plataformaren bidez lortu ezin bada (unibertsitateaz kanpoko titulu ofizial batzuk).
- Egiaztatu nahi den hizkuntza-eskakizuna egiaztatzen duen euskara-ziurtagiri edo -tituluren baten fotokopia, baldin eta hizkuntza-eskakizuna Euskara Titulu eta Ziur-



tagirien Erregistro Bateratuan erregistratuta ez badago, euskara-ariketa egitetik salbuetsita geratzeko.

- Era berean, merezimendurako, euskararen hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probetara aurkeztu nahi duten hautagaiek, eskabide-orrian adierazi beharko dute asmo hori, eta ez zaie parte hartzen utziko eskabideak aurkezteko epearen barruan hori adierazi ez badute.
- Erantzukizunpeko adierazpena, non zerrendatuko diren legatutako merezimenduak, merezimendu horiek egiaztatzeko behar beste agiri erantsita (kopia konpultsatuak), salbu eta datu edo informazio elkarreragileak direnean, arestian adierazitakoaren arabera. Ezin izango dira baloratu eskabideak aurkezteko epearen barruan alegatu eta justifikatutakoez bestelako merezimenduak, ezta epe horren barruan alegatu arren geroago justifikatu direnak ere. Eskabideak aurkezteko epea ixten den eguna hartuko da kontuan merezimenduak baloratzeko, eta hori izango da, halaber, eskatutako baldintzak betetzeko erreferentzia-data (hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko proba hautaketa-prozesu honetan egingo den eguna izan ezik).

2. *Eskatzaileak onartzea*

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, alkate-udalburuak ebazpena emango du onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onartzeko. Ebazpen hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta erakundearen ediktu-oholean eta webgunean jarriko da ikusgai. Baztertutako hautagai bakoitzari dagokionez, baztertzea eragin duten arrazoiak adieraziko dira behin-behineko zerrendan, eta hamar (10) egun balioduneko epea emango da erreklamazioak egiteko eta eskabidearen akatsak zuzentzeko, eta ohartaraziko da, hala egin ezean, eskabidea beste izapiderik gabe artxibatuko dela.

Epe hori igarotakoan, erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko zerrenda behin betikotzat joko da automatikoki. Halakorik badago, onartu edo ezetsi egingo dira, behin betiko zerrenda onartzen duen ebazpen berri baten bidez. Zerrenda hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, Udalaren ediktu-oholean eta webgunean.

Ebazpen horren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, bi hilabeteko epean, onartuen eta baztertuen zerrenda Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eta, aukeran, aurreitazko berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da hilabeteko epean.

Probak egiteko egunean ez bada emandako errekurtsoa ebatzi, eraginpeko pertsonen probak egin ahal izango dituzte, baina horiek ez dute baliorik izango, errekurtsoa ezesten bada.

3. *Jakinarazpenak*

Jakinarazpenak egin beharko balira, instantzian adierazitakoa hartuko da helbide-tzat, baldin eta geroago organo deitzaileari berariaz eta modu frogagarrian beste helbide bat jakinarazten ez bazaio.

4. *Datuak babestea*

Informazioaren tratamendurako honako hauetan ezarritakoa hartuko da kontuan: datu Per tso nalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Berma tze ari buruzko aben dua ren 5eko 3/2018 LegeOrganikoa; Europako Parlamentuaren eta Kon tse iluaren 2016koapirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, pertsona fisikoen babesari buruzkoa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez; eta aplikatze-koak diren gainerako xedapenak.

Hautagaiek hautaketa prozesu batean parte hartzeko eskabide inprimakia aurkezteak berekin dakar aldizkari ofizialetan, iragarkitauletan, Udalaren webgunean eta hautaketa prozesua arautzen duten oinarriak aplikatuz erabiltzen den beste edozein bitartekotan egiten diren argitalpenetan hautagaiak identifikatzeko baimena ematea. Era berean, hautagaiak baimena ematen dio Valle de Trápaga-Trapagarango Udalari hautaketa-prozesu zehatzetik eratorritako lan poltsak kudeatzean bere datu pertsonalak tratatzeko eta hala proba psikoteknikoak nola nortasun-probak egiteko.



Oinarri hauen xede diren hautaketa prozesuak publizitate printzipioak arautzen ditu, eta, beraz, ez da eskaerarik onartuko hautagaiak ez badu onartzen bere datuak aurreko paragrafoan adierazitako edukiarekin eta helburuetarako lagatzea.

Hautaketa prozesuan parte hartzeak, halaber, berekin dakar hautagaiak hautaketa prozesuan zehar aurkeztu behar duten dokumentazioa tratatzea, Datuak Babesteko (Espainiako eta Euskadiko) Agentziaren irizpideen arabera.

Bestalde, oinarri hauetan aipatzen diren hautaketa prozesuak egitearen ondorioz lan poltsak egiteari buruzko oinarrian aurreikusitako ondorioetarako, hautagaiak prozesu horietan parte hartzeko eskaeran adierazi beharko dute ea aurka dauden Administrazio Publikoak beste erakunde batzuei lagatzearekin datu hauek: izena eta abizenak, NANa, helbidea, harremanetarako telefonoa eta egindako prestakuntza maila. Horiek erabiliko dira, soil-soilik, legez aurreikusitako baldintzetan enplegu eskaintzak egin ahal izateko, eta berariaz aurkakorik adierazi ezean, horretarako baimena ematen dutela ulertuko da.

Hautagaiak emandako datuak fitxategi batean sartuko dira eta hautapen prozesuaren kudeaketarako baino ez dira erabiliko. Fitxategi horren organo arduraduna Valle de Trápaga-Trapagarango Udaleko Giza Baliabideetako Saila da.

Interesdunek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubiak erabili ditzakete Udaleko erregistroaren bulegoetara joanda edo Udalaren egoitza elektronikoaren bidez.

Laugarrena. — Epaimahai kalifikatzailea

1. Izendapena

Udal organo eskudunak izendatuko ditu epaimahai kalifikatzaileko kideak, eta bera arduratuko da hautaprobak garatzeaz eta kalifikatzeaz.

Izendapenak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, iragarki-oholean eta Udalaren webgunean argitaratuko dira, onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrendarekin batera.

2. Eraketa

- a) Deitutako hautaketa prozesuetako kalifikazio-epaimahaiak honako hauetan adierazitakoaren arabera osatuko dira: Enplegu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 60. artikulua, ekainaren 7ko 896/91 Errege Dekretuaren 4. artikulua, Euskal Enplegatutako Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 81. artikulua, apirilaren 2ko 7/85 Legearen 127.1.h) artikulua abenduaren 16ko 57/03 Legeak eginiko idazketan eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuko 21. artikulua.
- b) Hautaketa prozesua baloratzeko eratzten den epaimahaiak epaimahaiburu bat, idazkari bat eta lau mahaikide izango ditu. Epaimahaikide kopurua ez da inola ere bostetik beherakoa izango. IVAPek izenda tutako kide bat egongo da kideen artean.
- c) Kalifikazio-epaimahaiko kideen izendapena hautaketa-prozesuan onartuak eta baztertutak izan direnen behin-behineko zerrenda onartzen duen ebazpenarekin eta oposizio aldiko lehenengo probaren datarekin batera egingo da. Ebazpen hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Udalaren web-orrian eta iragarki-taulan argitaratuko da.
- d) Epaimahaiaren osaera teknikoa izango da, eta epaimahaikideek deitutako plazak eskuratzeko eskatzen den maila bereko edo goragoko titulazio akademikoa izan beharko dute. Eraberean, espezialitatearen printzipioa errespetatuko da, eta, horren arabera, kideen erdiek, gutxienez, sartzeko eskatzen den jakintza arlo bereko titulazioa izan beharko dute.
- e) Hautaketa edo izendapen politikoko langileak, bitarteko funtzionarioak eta behin-behineko langileak ezin izango dira hautaketa-organoetako kide izan.
- f) Hautaketa-organoetako kide izatea norberaren izenean izango da beti, eta ezin izango da inoren ordezkari edo kontura jardun.



- g) Epaimahaiaren osaerak orekatua izan behar du, trebakuntza, gaitasun eta pres-takuntza egokia duten emakume eta gizonen artean, baldin eta ez bada justifika-tzen hori ez dela egokia.
- Ordezkaritza orekatutzat joko da lau kide baino gehiagoko organoetan sexu ba-koitzak gutxienez %40ko ordezkaritza duenean; gainerako organoetan, sexu biak ordezkatuta daudenean.
- Salbuespen gisa, eta dagokion erakunde publikoan emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko eskumena duen organo edo organismoaren aldeko txostenarekin, justifikatu ahal izango da organo pluripertsonaletan ordezkaritza orekatuaren irizpidea ez aplikatzea, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuko 3.10. artikuluan aipatzen diren kasuetan.
- h) Kalifikazio epaimahaietan IVAPek izendatutako kide bati dagokion ordezkaritza alde batera utzita, erakunde horrek izendatutako kide bat epaimahaietako kide izango da hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko probak egiteko eta ebaluatzeko bakarrik.
- i) Epaimahaiak bere lanetan aholkulari espezialistak sartzea erabaki ahal izango du, egokitzat jotzen dituen probetarako. Aholkulari horiek beren espezialitate tek-nikoetan laguntza ematera mugatuko dira, hitza edukiz, baina botorik ez.

3. Osaera

- a) Epaimahaia ezin izango da eratu, ezta jardun ere, Mahaiburutza eta idazkaritza betetzen duten pertsonak (titularrak edo ordezkoak) eta gainerako kideen erdiak, gutxienez, bertaratugabe.
- b) Mahaiburutzako karguak betetzen dituztenak ez badaude, kargu horren titularrak bere ordezkoa izendatuko du boto eskubidea duten kideen artetik, eta, izendape-nik ez badago, iherarkia (A1, A2 azpitaldearen arabera), antzintasun edo adin gehien duen kideak, hurrenkera horretan, ordezkatuko du
- c) Mahaiburuak koordinatuko du hautaketa prozesua, eta bere kalitatezko botoa-rekin ebatziko ditu bozketetan gerta daitezkeen berdinketak. Epaimahaiko kide guztiek izango dute hitza eta botoa, idazkariak izan ezik, horrek hitza izango baitu, baina botorik ez.

4. Ahalmenak

- a) Epaimahaiak autonomia funtzional osoz jardungo du, prozeduraren objektibo-tasunaz arduratuko da eta deialdiaren oinarriak betetzen direla bermatuko du. Bere jardunean, independentzi eta diskrezionalitate teknikoaren printzipioak ber-matuko dira.
- b) Hautaketa prozesuaren edozein unetan, epaimahaiak jakiten badu dagokion deialdian parte hartzeko eskatutako baldintzaren bat betetzen ez duten hauta-gaiak daudela, interesdunari entzun ondoren, organo eskudunari kanporatzea proposatu beharko dio, eta hautagaiak parte hartzeko eskabidean egindako oke-rrak edo faltsukeriak jakinarazi beharko dizkio.
- c) Kalifikazio epaimahaiak, edozein kidek eskatuta, prozesuko edozein faseri eragi-ten dion jatorrizko dokumentazioa eskatu ahal izango du hautaketa prozesuaren edozein unetan.
- d) Epaimahaiak ahalmena izango du, oinarri hauetan aurreikusita ez dagoen guz-tian, hautaketa prozesua behar bezala antolatzeko eta garatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartzeko, eta prozesua interpretatzeari eta aplikatzeari buruz sortzen diren arazoak ebazteko, bai eta bere eginkizunak betetzeari buruzko erabakiak ere hartzeko. Halaber, dagozkion neurriak hartu ahal izango ditu, ber-matzeko hautaketa-prozesuarekin jarraitu ahal izateko adina hautagaiak probak gaindituko dituztela.



- e) Epaimahaiaren jarduera eta/edo argitalpenen aurkako alegazioak idatziz aurkeztuko dira Valle de Trápaga-Trapagarango Udaleko erregistro orokorrean edo erregistro elektronikoan.
- f) Epaimahaiaren ebazpenek udal organo eskudunak lotesten dituzte, nahiz eta, hala badagokio, organo horiek berrius ditzaketen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 106. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoaren arabera.
- g) Kalifikazio Epaimahaia bitarteko elektronikoa eta telematikoen bidez eratu ahal izango da, eta hala egin ahal izango dituzte saioak, bai eta erabakiak hartu ere, betiere parte hartzen duten kideak Espainiako lurraldean badaude eta haien norasuna egiaztatuta badago. Halaber, ziurtatu egin beharko da euren arteko komunikazioa denbora errealean egiten dela saioan zehar.

Aurreko ondorioetarako, bitarteko elektronikoa baliozkotzat jotzen dira audiokonferentziak, bideokonferentziak edo bestelako sistema teknologikoak edo ikus-entzunezkoak, segurtasun teknologikoa, eztabaidaren baliozkotasuna eta hartzen diren erabakien boz-keta behar bezala bermatzen badute.

4. *Abstentzia eta errefusatzea*

Epaimahaikideek eta aholkulari espezialistek uko egin beharko diote jarduteari, edo interesdunek edozein unetan errefusatu ahal izango dituzte, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. Artikuluan aurreikusitako abstentzio arrazoiren bat badago.

Seigarrena. — Hautapen prozesua nola egingo den

1. *Hautagaiak aukeratzeko prozedura*

Hautagaiak hautatzeko prozedura oposizio-lehiaketa izango da, txanda librean.

Era berean, hautaketa-prozesuan praktikaldi bat edo prestakuntza-ikastaro bat gainditu ahal izango da, deialdiaren oinarrietan ezarritakoaren arabera eta indarrean dagoen araudian adierazitako iraupen-mugarekin.

2. *Oposizio fasea*

Gaitegiak gai-zerrenda orokor bat izango du, edukiaren bostena izango dena, gutxienez (Espainiako Konstituzioari, Estatuaren Antolamenduari, Autonomia Estatutuari, Toki Araubideari, Administrazio Zuzenbide Orokorrari eta Ogasun Publikoari eta Zerga Administrazioari buruzkoa izango da, nahitaez) eta berariazko gai-zerrenda bat, Administrazio Bereziko Eskalan sartzeko, eta gaitegiaren lau bostenak osatuko dituena (bete beharreko eginkizunei buruzko araudi espezifikoak). Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean indarrean dagoena izango da araudia.

Ariketak teorikoak eta praktikoak izan daitezke. Probetan ariketa praktiko bat edo gehiago egin ahal izango dira, eta honako hauek izan daitezke: test psikoteknikoak, testen tratamendua, txostenak eta proiektuak idaztea, kasuak ebaztea, hizkuntza-probak eta hautagaien prestakuntza ebaluatzeko egokitzat jotzen diren antzeko beste batzuk, bete beharreko lanpostuei dagokienez. Ahozko probak egiten badira, grabatu egingo dira.

Oposizioko probak nola egingo diren:

— Hasiera.

Oposizio-faseko ariketak ezin izango dira hasi deialdiaren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta gutxienez hilabete igaro arte.

Kalifikazio Epaimahaia oposizio-faseko probak oinarrietan aurreikusitakoaz bestelako hurrenkeran egitea erabaki ahal izango du, baita egun berean hainbat proba egitea ere.

— Argitalpena.

Oposizio faseko lehen ariketaren tokia, eguna eta ordua Udaletxeko Iragarki Oho-lean eta <https://www.trapagaran.net> web orrian argitaratuko dira, gutxienez zazpi egun baliodun lehenago. Oposizioaren gainerako ariketen iragarpenak Epai-



mahaiak argitaratuko ditu Udaletxeko iragarki-oholean eta Udalaren webgunean: <https://www.trapagaran.net>. Iragarpen horiek, gutxienez, hurrengo ariketa egin baino 48 ordu lehenago argitaratu beharko dira.

– Deialdia.

Hautagaiei deialdi bakarra egingo zaie ariketa bakoitzerako, eta dei egiten zaien unean pertsona bat ariketetako batera aurkezten ez bada, automatikoki bertan behera geratuko da ariketa berean eta hurrengoetan parte hartzeko duten eskubidea. Ondorioz, hautaketa-prozesutik kanpo geratuko dira, behar bezala justifikatutako eta epaimahaiak askatasunez balioetsitako kasuetan izan ezik.

Arau bera aplikatuko zaie nahitaezko ariketetako edozein egitera aurkezten diren izangaiei, ariketa horiek egiten hasi ondoren. Probak ez egitea edo berandu egitea proba horiei uko egitea izango da.

– Identifikazioa.

Epaimahaiak une oro eskatu ahal izango die hautagaiei behar bezala identifika daitezen. Horretarako, oposizio-ariketa bakoitzean NANA edo beste edozein agiri ofizial eraman beharko dute, baldin eta, epaimahaiaren iritziz, hautagaiaren nortasuna behar bezala egiaztatzen badu (pasaporte, gidabaimena, atzeritarren nortasun-zenbakia, etab.).

– Ariketen arteko tartea.

Oposizioaren ariketa bakoitza amaitu eta hurrengo hasten denetik, gutxienez 72 ordu eta gehienez 45 egun baliodun igaro beharko dira. Bigarren epean ez da zenbatuko abuztua, baliogabea izango baita ondorio horietarako. Hala eta guztiz ere, eta komenigarritzat jotzen badu, epaimahaiak ariketa bat baino gehiago egin ahal izango ditu aldi berean saio berean, eta izangaiek komenigarritzat jotzen dituzten ariketak irakurri ahal izango dituzte. Ariketa hori publikoa izango da, eta behar den egunetan eta orduetan egingo da. Kasu horretan, 48 ordu lehenago argitaratu beharko da udaletxeko iragarki-oholean eta udalaren web-orrian (<https://www.trapagaran.net>).

– Erreklamazioak.

Kalifikazioak argitaratu eta hiru egun balioduneko epea emango da emandako kalifikazioei buruzko erreklamazioak aurkezteko.

2.1) Lehenengo proba: Teorikoa. Derrigorrezkoa eta kanporatzailea

Ezagutza-proba, test motako galdetegi bati idatziz erantzutean datzana.

Edukiak zehazteko, oinarri hauetako I. eranskineko gai-zerrendan (Gaitegia: Atal Orokorra) jasotakoa hartuko da kontuan.

Kalifikazio-Epaimahaiaren esku geratzen da galdera-kopurua eta probaren iraupena finkatzea, eta ariketaren hasieran jakinaraziko da.

Test motako galdera-sortako galdera bakoitzak lau erantzun-aukera izango ditu, eta horietako bat bakarrik izango da zuzena.

Proba horretan, erantzun ez-zuzen bakoitzak erantzun zuzen bakoitzari esleitutako balioaren % 0,333ko zigorra jasoko du. Erantzun gabeko galderek ez dute penalizatuko.

Proba hori 0 puntutik 10era baloratuko da, eta gutxienez 5 puntu lortzen ez dituztenak automatikoki baztertuko dira.

2.2) Bigarren proba: Teorikoa. Derrigorrezkoa eta kanporatzailea

Ezagutza-proba, test motako galdetegi bati idatziz erantzutean datzana.

Edukiak zehazteko, oinarri hauetako II. eranskineko gai-zerrendan (Gaitegia: Bera-riazko atala) jasotakoa hartuko da kontuan.

Kalifikazio-Epaimahaiaren esku geratzen da galdera-kopurua eta probaren iraupena finkatzea, eta ariketaren hasieran jakinaraziko da.



Test motako galdera-sortako galdera bakoitzak lau erantzun-aukera izango ditu, eta horietako bat bakarrik izango da zuzena.

Proba horretan, erantzun ez-zuzen bakoitzak erantzun zuzen bakoitzari esleitutako balioaren %0,333ko zigorra jasoko du. Erantzun gabeko galderek ez dute penalizatuko.

Proba hori 0 puntutik 20era baloratuko da, eta gutxienez 10 puntu lortzen ez dituztenak automatikoki baztertuko dira.

2.3) Hirugarren proba: Praktikoa. Derrigorrezkoa eta kanporatzailea

Lanpostuaren eginkizunekin, I. eranskineko gai-zerrenda orokorrarekin eta oinarri hauek II. eranskineko gai-zerrenda espezifikorekin zerikusia duten epaimahaiak planteaturiko kasu teoriko, teoriko-praktiko eta/edo praktiko bat edo batzuk ebaztean datza.

Epaimahaiak ahalmena izango du atal honetako kasuen ebazpena derrigorrez osorik egieta proposatzeko, edo zenbaiten artean bat aukeratu eta ebaztea proposatzeko

Ariketa hau eta gai zehatzak idatziz garatzea eskatzen duen beste edozein kalifikatzeko, kontuan hartuko dira erantzunen zehaztasuna, legedi aplikagarriari buruzko erreferentziak, laburtzeko eta aztertzeko gaitasuna, garatutako ideien aberastasuna, eta horien azalpenaren argitasuna eta zuzentasuna.

Proba hau 0 eta 30 puntu artean kalifikatuko da, eta gutxienez 15 puntu lortzen ez dituzten hautagaiak automatikoki baztertuko dira.

3. *Lehiaketa fasea*

Lehiaketa-fasearen kalifikazioa oposizio-fasea gainditu duten pertsonen bakarrik aplikatuko zaie.

Lehiaketa-fasean, deialdiaren oinarrietan jasotako merezimenduak aztertu eta baloratu dira. Oposizio-fasea gainditu duten hautagaiek behar bezala egiaztatu beharko dituzte merezimendu horiek eskabidean, eta ezin izango dira baloratu bestelako merezimenduak. Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunera arte bakarrik zenbatuko dira alegatutako merezimenduak (hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea izan ezik, orduan egingo baita hautaketa-prozesu honetan hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko proba).

Balorazio hori egiteko, bakoitzari dagozkion puntuak esleituko zaizkio, deialdiko balorazio espezifikoen arabera.

Oposizio-lehiaketa bidez egiten diren hautaprobetan, lehiaketa-fasea ez da baztertzat hartuko, eta ezin izango da kontuan hartu oposizio-faseko probak gainditzeko, Toki Administrazioen funtzionarioen hautatzeko prozedura arautzen duen ekainaren 7ko 896/91 Errege Dekretuaren 4.c) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Lehiaketa fasearen balorazioak ezin izango du gainditu oposizio fasean lor daitekeen gehienezko puntuazioaren % 45, Euskal Enplegu Publikoaren Legearen 78. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Lan-esperientziaren balorazioan, epaimahaiak honako hauek zenbatuko ditu: hautagaiak senitartekoak zaintzeko edo genero-indarkeriagatik eszedentzian egon diren denbora, amatasuna eta aitatasuna babestea helburu duten lanaldi-murrizketei edo baimenei egotz dakiekeen denbora, edo bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa erantzukidetasunez bateratzen laguntzea helburu duten denbora, bai eta enplegatu publikoek genero-indarkeriagatik baimenak erabili dituzten denbora ere.

Urte, sei hileko edo hilabetekoa igarotako denboraren arabera baloratzen diren merezimenduak akreditatutako aldien batura egunen arabera eginez zenbatuko dira, eta ez dira erreferentziako aldiaren azpiko zatiak zenbatuko. Ondorio horietarako, honako hau hartuko da urtezat: 365 egun naturalen batura, sei hilekoa, 180 egun naturalen batura eta hila, 30 egun naturalen batura.

3.1) Esperientzia (Administrazio Publikoan egindako zerbitzuak)

Atal honetan gehienez 14 puntu lor daitezke.



Eskabideak aurkezteko epea amaitu aurreko aldiak bakarrik kontabilizatuko dira. Ez dira baloratuko behin-behineko langileentzat gordetako lanpostuetan zerbitzuak ematea, ezta bekak eta prestakuntza-praktikak ere.

- Arkitekto tekniko edo aparejadore gisa A2 taldeko lanpostuetan Administrazio Publikoan azken hamar (10) urteetan -2014 urtetik- egindako zerbitzuengatik, 0,175 puntu hilabete oso bakoitzeko, beheko zatikiak zenbatu gabe, gehienez ere 14 puntu.

Dagokion administrazio publikoak emandako ziurtagirien bidez justifikatuko da.

3.2) Prestakuntza

Atal honetan gehienez 13 puntu lor daitezke.

- a) Eskuratu nahi den lanpostuarena baino goragoko titulazio ofiziala, ingeniartzako eta arkitekturako jakintza-adarrekoa: 3 puntu goi-mailako titulu bakoitzeko. Hori egiaztatzeke, eskumena duen ikasketa-administrazioak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko da.
- b) Atal honetan unibertsitate batek emandako unibertsitateko graduondoko edo masterreko ikastaroak eta IVAPek, INAPek edo beste erakunde ofizial batek (administrazio publikoak, unibertsitateak, Hezkuntza Ministerioaren mendeko zentroak edo autonomia-erkidegoetako eta ministerioetako Hezkuntza Sailak, Kontseilaritzak, merkataritza-ganberak edo elkargo ofizialak) antolatutako prestakuntza-ikastaroak, jardunaldiak eta abar baloratuko dira. Ikastaro horiek bete beharreko lanpostuari buruzkoak izango dira, eta bereziki hirigintza-plangintzarekin, hirigintza-kudeaketarekin, hirigintza-diziplinarekin, hirigintza-egikaritzearekin, jarduera-espediterekin, lurzoruaren kalitatearen kudeaketarekin eta ingurumen-kudeaketarekin lotutakoak, horien iraupen-orduen kopuruaren arabera eta baremo hauen arabera:
 - Doctoregoa: 3 puntu.
 - 500 orduko edo gehiagoko Graduondokoa edo Masterra: 2 puntu titulu bakoitzeko.
 - 250 orduetik gorako eta 500 orduetik beherako Graduondokoa edo Masterra: 1,5 puntu titulu bakoitzeko.
 - Prestakuntza ikastaroak, Jardunaldiak, etab.:
 - 201etik 250 ordura arteko bakoitzagatik: 1,00 puntu.
 - 151etik 200 ordura arteko bakoitzagatik: 0,75 puntu.
 - 101etik 150 ordura arteko bakoitzagatik: 0,50 puntu.
 - 50etik 100 ordura arteko bakoitzagatik: 0,25 puntu.Ikastaroak egin ziren zentroak edo erakundeak emandako aprobetxamendu-ziurtagiriaren bidez egiaztatuko dira. Ziurtagiri horretan, ikastaroaren iraupen-orduak jasoko dira.
- c) Beste hautaketa-prozesu batzuk: Aparejadore, arkitekto tekniko edo baliokide plazak edo Ingeniaritza eta Arkitekturako jakintza-adarreko goragoko mailako beste edozein lanpostu jabetzan edo bitarteko erregimenean edo lan-kontratu edo txanda-kontratu bidez betetzeko edozein administrazio publikok egindako deialdiren batean oposizio-faseko hautaprobea guztiak gainditzeagatik azken hamar (10) urteetan -2014 urtetik- gaur arte, hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeke probak izan ezik: 3 puntu emango dira gainditutako hautaketa-prozesu bakoitzeko. Hautaketa-prozesu hori hautaketa-proba guztiak gainditu dituen Administrazio Publikoak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da, eta hori adierazi beharko da deialdiak jabetzan edo bitarteko erregimenean edo lan-kontratu edo txanda-kontratu bidez, aparejadore edo arkitekto tekniko plazak betetzeko direla.

**3.3) Hizkuntza eskakizunak egiaztatzea eta euskararen ezagutza baloratzea****3.3.1. Hizkuntza eskakizunak egiaztatzea:**

Prozesuan parte hartzen duten pertsonak hizkuntza-eskakizunak badituztela egiaztatu ahal izango dute agiri ofiziala aurkeztuz edo horretarako deitutako berariazko proba edo proben bidez.

3.3.1.1. Agiren bidez egiaztatzea .

Agiri bidezko egiaztapena hautaketa-prozesu honetako hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko proba egiten den egunera arte egin ahal izango da.

Ez da beharrezkoa izango Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan (ETZEB) dauden datuak egiaztatzea. Prozesu honetan parte hartzeak esan nahi du Valle de Trápaga-Trapagarango Udalarari baimena ematen zaiola datu horiek Erregistro horretan kontsultatzeko. Baimen hori eman beharko da, eta horretarako, dagokion laukitxoan, eskabide-orriko baimen espezifikoak markatu beharko da.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko maila horien baliokideak diren titulazioak azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan jasotzen dira (297/2010 Dekretua, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagiriak baliokidetzeko eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko), bai eta apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan ere (47/2012 Dekretua, euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartzeko eta euskarazko hizkuntza-titulu eta -ziurtagirien bidez egiaztatzenetik salbuesteko).

3.3.1.2. Berariazko proba batez bidez egiaztatzea. .

Eskaintako lanpostuan ezarritako hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko, borondatezko proba edo probak egingo dira, Europako Kontseiluak onartutako Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 mailari (3. hizkuntza-eskakizuna) dagokion zailtasun-mailarekin.

IVAPek proposatuta izendatutako pertsona batek osatuko du Kalifikazio Epaimahaia, deialdian eskatzen diren hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probetan.

Proba edo proba horiek egiteko ordua eta lekua Epaimahai Kalifikatzailearen Erabakiaren bidez jakinaraziko dira. Erabaki hori Udalararen iragarki-oholean eta <https://www.trapagaran.net> web-orrian argitaratuko da.

3.3.2. Euskararen ezagutza merezimendu gisa baloratzea

Euskararen ezagutza merezimendu gisa baloratuko zaie Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko titulazio baliokideak dituztenei. Epaimahai Kalifikatzaileak, oinarri honetan jasotakoaren bidez, dagozkien puntuak emango dizkie, aurreko atalean aurreikusitako proba edo probak egin beharrik gabe.

Egiaztapena oinarri honen aurreko atalean adierazitako moduan egin ahal izango da.

Egiaztapena oinarri honen aurreko atalean adierazitako moduan egin ahal izango da.

Lanpostu hori lortu nahi duten izangaien euskara-ezagutza jarraian jasotzen den baremoaren arabera baloratuko da, eta maila handieneko titulu baliokideak bakarrik baloratuko da:

- B1 / 1 HE: 4,35 puntu.
- B2 / 2 HE: 7,40 puntu.



- C1 / 3 HE: 10,44 puntu.
- C2 / 4 HE: 13,05 puntu.

Zazpigarrena. – Hautapen prozesuaren kalifikazioa**7.1. Emaizten argitalpena**

Oposizio faseko eta lehiaketa faseko ariketa bakoitzeko puntuazioak dagokien argazkiaren bidez argitaratuko dira Udaletxeko Iragarki Oholean eta Udalaren web orrian.

7.2. Merezimenduen balorazioa

Aurreko oinarrietan ezarritako baremoen arabera esleitutako puntuen baturak zehaztuko du oposizio-fasea gainditu duten pertsonen lehiaketa-merezimenduen balorazioa.

Merezimenduen balorazioa behin-behinean argitaratu eta hiru egun balioduneko epea emango da emandako kalifikazioei buruzko erreklamazioak aurkezteko.

Zortzigarrena. – Lehiaketa-oposizioa gainditu dutenen behin behineko eta behin betiko zerrenda

8.1. Oposizio-lehiaketaren guztizko puntuazioa bi faseetan lortutako puntuazioen batura izango da, eta izangaien lehentasun-ordena zehaztuko du. Saikapen-ordenako puntuazioarekiko berdinketak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean jasotako irizpidearen arabera ebatziko dira. Berdinketak bere horretan jarraitzen badu, oposizioko lehen proban puntuazio handiena lortu duenaren alde ebatziko da; bigarrenik, Administrazio Publikoetan zerbitzuan denbora gehien eman duenaren alde; eta azkenik, adin handiena duenaren alde.

Kalifikazio Epaimahaiak gaindituen behin-behineko zerrenda onartu eta argitaratuko du, dagozkien kalifikazioak kontuan hartuta, puntuazio-ordenaren arabera.

8.2. Aurreko paragrafoan aipatutako behin-behineko zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik hasita 10 egun balioduneko epean, interesdunek egotzitzat jotako erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte haien aurka, eta behin betiko zerrenda onartu baino lehen ebatziko dira.

8.3. Epe hori igarotakoan, epaimahaiak behin betiko zerrenda onartu eta iragarri-oholean eta <https://www.trapagaran.net> udalaren webgunean argitaratuko du, eta alkatetzari helaraziko dio, kalifikazioak kontuan hartuta, puntuazio-ordenaren arabera.

Era berean, azken bilkurako akta bidaliko dio Agintaritzari horri, izendapen osagarria egiteko proposamen gisa. Akta horretan, puntuazio-ordenaren arabera, proba guztiak gainditu eta deitutako plaza gainditzuten duten oposiziogile guztiak agertuko dira, betiere hautaketa-prozesua amaitu arte sortutako lanpostu hutsak bete behar badira.

Bederatzigarrena. – Dokumentuak aurkeztea

Proposatutako oposiziogileak deialdiaren oinarrietan hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskatzen diren baldintzak egiaztatzeko agiriak aurkeztuko ditu Udal Erregistroan, gaindituen zerrenda argitaratu eta 20 egun balioduneko epean:

1. Kargu publikoak betetzeko ezgaituta ez dagoela eta diziplinazko espedientearen bidez Herri Administrazioaren zerbitzutik banandu ez dutela dioen adierazpena.
2. Herri-administrazioen zerbitzura dauden langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitako bateraezintasun-kausaren batean ez egotearen adierazpena.
3. Udalbatzak erabakitako mediku-zerbitzuek emandako ziurtagiri medikoa, oinarri hauen arabera dagozkien eginkizunak normaltasunez betetzea eragozten duen gaixotasun edo akats fisiko edo psikikorik ez duela egiaztatzen duena. Desgaitasuna duten izangaiak organo eskudunaren ziurtagiri ofiziala aurkeztu beharko dute, izaera hori eta lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzeko gaitasuna dutela egiaztatzeko.
4. Lehiaketa-fasean aurkeztutako merezimenduen fotokopia konpultsatua.



5. Deialdiaren oinarrietan eskatzen diren gainerako betekizun espezifikoak agiri bidez justifikatzea, fotokopia konpultsatua aurkeztuz.

Adierazitako agiriak aurkezteko behar bezala justifikatuta ez badago, deialdian eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatu ahal izango du izangaiak, zuzenbidean onargarria den edozein frogabideren bidez. Funtzionario publiko edo lan-kontratuko langile direnak salbuetsita egongo dira aurreko izendapena lortzeko frogatutako baldintzak eta betekizunak agiri bidez justifikatuzetik. Horretarako, haien mendeko ministerioaren, toki-korporazioaren edo organismo publikoaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute, haien izaera eta zerbitzu-orrian agertzen diren inguruabar guztiak egiaztatzen dituen.

Adierazitako epearen barruan, eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, proposatutako oposiziogileak ez badu dokumentazioa aurkeztzen edo ez baditu eskatutako baldintzak betetzen, ezin izango da izendatu, eta bere jarduera guztiak baliogabetuko dira, hargatik eragotzi gabe eskabidean faltsutzeagatik izan lezaketen erantzukizuna, hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskatuz.

Kasu horretan, zortzigarren oinarrian aipatzen den izendapen osagarriaren proposamena sartuko da jokoan, puntuazio-ordenaren arabera, baliogabetze horren ondorioz plaza horretan lekua duenaren alde.

Bederatzigarrena. — *Praktiketako funtzionario izendatzea*

1. Hautatutako pertsona, deialdiaren baldintzak betetzen dituela behar bezala egiaztatu duena, Alkatetzak izendatuko du funtzionario edo praktiketako funtzionario, eta izendapen hori dagokion aldizkari ofizialean/ofizialetan argitaratuko da.

Praktiketako funtzionario izendatutako pertsona egoera horretan egongo da bere jarduera hasten denetik karrerako funtzionario izendatu arte edo hautaketa-prozeduratik kanpo utzi arte.

Aldi hori nahitaezkoa eta baztertzalea izango da, banaka hartuta, eta ez gainditzeak hautaketa-prozeduratik kanpo uztea ekarriko du, bai eta deialdian aipatzen den hirigintzako teknikariaren kategorian sartzeko gainditu ez duten pertsonak izan ditzaketen eskubide guztiak galtzea ere.

Praktikaldia 6 hilabetekoa izango da gehienez.

Praktikaldiak irauten duen bitartean, hirigintzako teknikariaren kategoriari dagozkion zereginak gauzatzearekin lotutako eraginkortasun profesionala ebaluatuko da. Ebaluazioa praktikaldiak irauten duen bitartean gertatzen diren gertakariei buruzkoa baino ez da izango.

Praktikaldia amaitzean, praktikaldiaren azken txostena egingo du nagusiak edo, bestela, hurrengoak, bere eskubideari dagozkion alegazioak edo oharrak egin ahal izateko. Praktikaldiaren ebaluazio hori gai edo ez-gai gisa kalifikatuko da.

Hautatuak praktikaldia gainditzeko ez badu, eskubide guztiak galduko ditu, erabaki arrazoitu bidez izendatuak izateko.

Hamargarrena. — *Lanpostuaz jabetzea eta lanpostuari atxikitzea*

1. Praktika-aldiaren amaierako ebaluazio-txostena egin eta hurrengo hilabetean, eta toki-korporazioko organo eskudunak proposatuta, Alkatetzak karrerako funtzionario izendatuko du hautaketa-prozedura gainditu duena, oinarri hauen arabera. Izendapena Valle de Trápaga-Trapagarango Udaleko hirigintzako teknikari gisa egingo da.

2. Izendatutako hautagaia izendapen-akordioan ezartzen den epean jabetu beharko da lanpostuaz. Horrela egiten ez badu, ezinbesteko kasuetan izan ezik, bere jarduera guztiak ondorioz gabe geratuko dira eta karrerako funtzionario izateko izan ditzakeen eskubide guztiak galduko ditu.

3. Izendapena indarrean dagoen araudian aurreikusitako moduan argitaratuko da (Bizkaiko. Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki-oholean eta udal webgunean <https://www.trapagaran.net>)

**Hamargarrena. — Lan-poltsa.lan-poltsa kudeatzeko irizpideak**

Oposizio-fasea gainditu duten hautagaien zerrendak udalean bertan antzeko funtzioak betetzeko aldi baterako beharrak estaltzeko balioko du.

Interesdunen baimenarekin, poltsa horiek beste toki-erakunde batzuei eman ahal izango zaizkie, aldi baterako enplegu-beharrak estaltzeko hala behar badute.

Hamargarrena. — Gorebeherak, aurkaratzeak

Epaimahaiak ahalmena izango du sortzen diren zalantzak argitzeko eta oposizioa behar bezala garatzeko behar diren erabakiak hartzeko, oinarri hauetan aurreikusi gabeko guztian.

Deialdia, oinarriak eta horietatik eta Epaimahaiaren jarduketatik eratorritako administrazio-egintza guztiak aurkaratu ahal izango dituzte interesdunek, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan ezarritako kasuetan eta moduan.

Hamaikagarrena. — Arau osagarriak

Oinarri orokor hauetan eta dagozkien oinarri espezifikoetan eta deialdietan ezarritakoaren arabera arautuko dira hautaketa-prozesuak.

Deialdi bakoitzari aplikatu beharreko oinarrietan aurreikusten ez den guztirako, hautaketa-prozesuak honako arau hauetan ezarritakora egokituko dira: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua; 1/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; Estatuko Administrazioari Langileak Zerbitzuetan Sartzeko Erregelamendu Orokorra, martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuaren bidez onartua, eta arlo horretan indarrean dagoen gainerako araudia.